

A black and white photograph of a person walking in the snow. The person is wearing a dark coat, a scarf, and a hat, and is carrying a bag. They are walking on a path that is covered in snow. In the background, there are some stone pillars and a fence. The overall atmosphere is cold and wintry.

Elurra da.



Elurra ari du.

A wide-angle photograph of a mountain range. The peaks are covered in a thick layer of white snow, contrasting with the dark, rocky slopes. The sky is filled with large, billowing white clouds, with patches of blue visible. The overall scene is majestic and serene.

Elurra egin du bart.



Hotz da karrikan.

Zenbait eguraldi-aditz eta -esapide jorratu dira aurreko fitxa batean: *Eguraldi-aditzak (1)*.



DU erregimeneko aditzak dira batik bat:

aldata, altxatu, argitu, arindu, atertu, berotu, bota, busti, ekarri, epeldu, eztitu...

Bestelako egiturak ere badira eguraldi-fenomenoak adierazteko:

● Izena + aditz kopulatiboa (IZAN):

❖ EURIA/ELURRA/KAZKABARRA (IZAN)¹

- **Euria da.**
- *Bai, nausia, **elurra da**; lurra xuriz estali da.* 
- **Babazuza da** goian-behean. (Kazkabarra/Txingorra/Inatazia/Harria IZAN)
- **Langarra dela** joan dira.

¹*Euria IZAN, elurra IZAN... aspektua puntukaria* denean soilik erabiltzen dira (*≈ euria ari du mendian, elurra ari du kostaldean...*); *euria EGIN, elurra EGIN* eta abar, berriz, *aspektua ez-puntukaria* denean (*bart euria egin du, iaz elur asko egin zuen...*).

Iturria: *Euskaltzaindiaren hiztegia* [moldatua]

● Izena + aditz kopulatiboa (IZAN):

❖ HOTZ/BERO (IZAN)

- **Hotz** da karrikan.
- Egun poxi bat **hotzago** da.
- **Hotz** denean, aterpean.
- **Bero** da kanpoan.
- **Bero** izanen da bihar.
- Aziendak begiratzan ditu eulietatik, **bero** denean. (*Laborantzako liburua*, Jean Pierre Duvoisin, 1858)

● Izena + aditz kopulatiboa (IZAN):

❖ ATERI/EGUZKI (IZAN)

- Kanpoan **ateri da**, eguraldia goibela izan arren.
- Egun **eguzki da**.
- **Eguzki denean** itzala goxo.
- ...



● Izena + aditz kopulatiboa (IZAN):

❖ OSKARBI/ZOHARDI/EDER (IZAN)

- Oskarbi da.
- Zohardi da.
- Zerua zohardi zen.
- Eder da aroa.
- ...

● Izena/Adjektiboa + aditz kopulatiboa (*EGON*):

❖ HOTZ/BERO (*EGON*)

- Kanpoan haizea dabil eta **hotz** dago.
- **Bero** zegoen kalean, **bero** etxeetan.
- ...

❖ HOTZ/BERO HANDIA (*EGON*)

- Laranjondo mardul haren itzalean ere, **bero handia zegoen** (*Loroaren teorema*, Denis Guedj, EHU, 2006. Euskaratzailea: Jon Muñoz.)

 Izena/Adjektiboa + aditz kopulatiboa (*EGON*):

❖ ATERI/OSKARBI/IZAR/GOIBEL/HODEITSU... (*EGON*)

- **Ateri** dago, eta ez dabil haizerik.
- **Izar** dago zeru zabalean.
- **Izarratua** dago, eta **oskarbi**.
- Zerua **goibel** dago.
- **Hodeitsu** dago, baina ez du ari.
- ...



● Egitura progresiboa (-TZEN ARI IZAN):

- **Argitzen** ari du.
- **Goititzen** ari du
- **Iluntzen** ari du.
- **Freskatzen** ari du kanpoaldean.
- **Hozten** ari du bat-batean.
- **Jasotzen** ari du.
- ...

● Izena + aditz progresiboa (ARIZAN):

- **Elurra ari du** mendian. (=Elurra da mendian.)
- **Elurra** mardul **ari du**.
- **Bero errea ari du**.
- **Trumoa ari du**.
- Aunitz/Erruz **ari du euria**.
- **Langarra ari zuen** badia gainean.
- **Hotz handia ari du**.
- ...

● Izena + aditz progresiboa (*JARDUN*):

- **Euria dihardu.**
- Bota ahalean **dihardu euria.**
- **Elur kizia dihardu.** [kizi: apurra, pixka]
- ...

Nolanahi ere den, NORK kasua darabilten zenbait adibide badira.
*Euskaltzaindiaren Hiztegia*n, esaterako:

- *Egun guztian dihardu zirimiria*k.
- *Atzoko aldean, makal dihardu euria*k.

Baita *OEH*n ere:

- *Edurrak dihardu farra-farra.*

○ Izena + *EGIN*

- **Bero/Hotz/Sargori** egiten du.
- Bihar goizean **izotz** egingo du.
- **Leia** egin du, baita kostaldean ere.
- Gaur **horma** egin du
- **Elurra** egin du, baina ez du zuritu.
- **Txingorra** egin du, baina atertu du.
- Gau guztian **euria** egin du.
- *Marigorringo: bihar eta etzi **eguzkia** egingo!*
- ...

Gehiago jakiteko:

Arteatx, Iñigo; Artiagagoitia, Xabier (2018). "Eguraldiaren gramatika euskaraz eta Gramatikaren Teoria". *ASJU* 52(1-2), 33-60

Euskara Batuaren Eskuliburua. "Eguraldiaren eta argi-orduen iraupenaren gertakariei loturiko aditzak"

"ITURRIKO" (2016/04/21). "Hotzitu dau. Ilundu dau. Euria egin dau". In *Bizkaieraren ataria*, www.bizkaiera.eus

Ortiz de Urbina, Jon. "Aditz inbertsonalak", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, www.ehu.eus/seg
 Segurola, Iñaki (2014/12/12). "[\[...\]](#)". 31 eskutik

Corpusak eta hiztegiak:

EHUko Euskara Institutua. *Ereduzko Prosa Gaur* (EPG).

Euskaltzaindia. *Euskaltzaindiaren hiztegia*

Garate, Gotzon (1988). *Erdarakadak*. Bilbo: Gero/Mensajero

Mokoroa, Justo (1990). "Tiempo atmosférico". In *Ortik eta emendik. Repertorio de locuciones del habla popular vasca* 2255.-2306.

Mitxelena, Koldo; Sarasola, Ibon. *Orotariko Euskal Hiztegia*.